

ALKATEAREN AGURRA

Guztia neurtu behar den garai batean bizi gara, ez gaude lasai ikusten edo sentitzen dugun horri zenbaki bat ipintzen ez badiogu. Intuizioa, pertzepzioa edo sentsazioak izan ditzakegu, baina datu baten konfirmazioaren bila gabiltza, maiz, benetan garrantzia duenari arreta kenduz. Aurten ere badatoz Sanmielak eta, gertatuko denaren neurgailurik bada, horiek, azken asteotan, kalean entzuten diren elkarrizketak dira:

Tipi-Tapako lagunek botako dute txupinazoa eta une hori ez dut galdu nahi!

Play back jaialdian zertaz aterako gara?

Herri bazkarirako tiketak noiz arte daude salgai?

Txoznako txanda ordubatean amaitu ostean, kontzertuaz gozatuko dut!

Hasia naiz moztarro egunerako jantzia prestatzen!

Ez diot zenbakirik jarriko aurtengo festen aurreikuspenari, baina jakin badakit bikainak izango direla. Nork bere neurrian ospa ditzala desio dut, baldintza bakarra, errespetua eta berdintasuna beti present egotea.

Giro ederra egongo dela usain daiteke, irurarren gogoak belarrira iritsi zaizkit eta nire begiek Kultur Mahaiko kideen lana ikusi dute. Horregatik, bihotzetik, aupa Irura eta gora Sanmielak!!



Vivimos en una época en la que queremos medirlo todo, no estamos tranquil@s si no ponemos un número a lo que vemos o sentimos. Podemos tener intuición, percepción o sensaciones, pero buscamos la confirmación de un dato, a menudo, distrayendo la atención de lo que realmente importa. Este año se acercan de nuevo las fiestas de San Miguel y si hay un medidor para predecir lo que va a ocurrir, esas son las conversaciones que se escuchan en la calle en las últimas semanas:

L@s amig@s del Tipi-Tapa serán las personas encargadas de lanzar el txupinazo y ¡ese momento no me lo quiero perder!

¿De qué saldremos en el festival de play back?

¿Hasta cuándo están a la venta los tickets para la comida popular?

Despues de terminar el turno en la txozna a la una de la mañana, ¡disfrutaré del concierto!

¡Ya he empezado a preparar el traje para el día del disfraz!

No voy a poner números a la previsión de las fiestas de este año pero estoy convencido que van a ser excelentes. Deseo que cada persona celebre las fiestas de la forma que desee pero eso sí, con una única condición, que lo haga siempre en términos de respeto e igualdad.

Mi intuición me dice que va a haber un gran ambiente, las ganas de l@s Irurarras me han llegado al oído y mis ojos han visto el trabajo de los miembros de la mesa de cultura. Por ello, desde el corazón, aupa Irura y gora Sanmielak!!

Diseinua:

Amaia Senperena Irazustabarrena • Tel.: 691 703 051 • senperena8@gmail.eus